




BALIABIDE GIDA,
SEXU-ESPLOTAZIORAKO
GIZAKIAK SALEROSTEARI
BURUZKOA



**NORTZUK IZAN DAITEZKEEN
BIKTIMAK**


2010eko Abendua

HERRIZAINGO SAILA / DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza
Dirección de Atención a las Víctimas de la Violencia de Género



SEXU-ESPLOTAZIORAKO PERTSONEN SALEROSKETA

Gida honen helburua da erabil ditzakezun baliabideei buruzko **informazioa** ematea, **laguntza** edo **informazio gehiago behar izanez gero, edo Salerosketa kasu bat salatu nahi baduzu.**



ZER DA PERTSONEN SALEROSKETA?

Pertsonak salerostea honetan datza: Pertsonak ERAKARRI, GARRAIATU, LEKUALDATU, HARTU EDO JASOTZEA INDARKERIA, IRUZURRA, HERTSAPENA, BOTEREAREN EDO AHULEZIA-EGOERA BATEN ABUSUA erabiliz, horretarako ORDAINKETAK EDO IRABAZIAK EMANEZ EDO HARTUZ, ERA HORRETANBESTE PERTSONA BATENGAINEKO AGINTEA DUEN BATEN BAIMENA LORTZEKO, HELBURUA SEXU-ESPLOTAZIOA DELA.

Salerosketa krimena da, giza eskubideen urraketa larria da eta emakumeen kontrako indarkeria modu bat da.

NOLA ERAKARRI NAZAKETE?

- Engaina zaitzakete **Interneten iragarkiez edo zurekin harremanetan jartzen diren pertsonen bidez**, eta lana eskaintzen dizute, modelo izateko kontaktuak, etab.
- **Senide, lagun eta ezagunak izan daitezke**, lana edo diru azkarra lortzeko promesen bidez engainatzen zaituztenak.
- **Maiteminduak** edo “printze urdinak” gezurrezko bikote-harreman batez engainatzen zaituztenak.
- Etxe-zerbitzuan edo tabernetan, modelo edo dantzari gisa lana eskaintzen duten **prentsa-iragarkien** bidez.
- **Bahiketaren** bidez.

UNE HONETAN BANAIZ SEXU-ESPLOTAZIORAKO SALEROSKETAREN BIKTIMA?

Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima izan zaitezke baldin eta:

- ... **lan egitera behartuta** eta zikinkeria eta higiene-gabezia edo esplotazio baldintzetan bazaude.
- ... jasotzen dituzun aginduak bete ezean, zuri edo zeure familiari gauza txarrak gerta dakizkizuela **mehatxatzen bazaituzte**.
- ... iraganean prostituzioan aritu zaren arren, orain beste pertsona batzuek **behartuta** egiten baduzu.
- ... **engainatu** zaituzte: egiten ari zaren lana ez da agindu zizutena.

Gainera, biktima izan zaitezke baldin eta...

- ... EZIN badituzu zeure **agiriak** aldean eraman (NANA, pasaporte, egoitza-txartela, etab.), ezta **dirurik** ere.
- ... Hitz egiteko **beldur** bazara, zuri edo zeure familiari zerbait gerta dakizuen beldur baitzara.
- ... Zuren “nagusien” edo aginduak ematen dizkizutenen **indarkeria fisikoa edo sexuala** jasan baduzu.
- ... **Ez badakizu zein hiritan bizi zaren eta ezin bazara** beste hiri batera **askatasunez joan** edo, nahi izanez gero, lanez aldatu.
- ... **Beti lagunduta** joan behar baduzu eta zure etxea eta/edo lantokia zainduta badago edo segurtsaun-neurri handiak baditu, hala nola, burdin sareak edo zaintza-kamerak.
- ... Zu identifikatzeko **markak edo seinaleak** eraman behar badituzu.
- ... Osasun-zerbitzuetan tratatu ezin duzun **gaixotasun edo ajeren bat** baduzu.



HAUEK DIRA ZURE ESKUBIDEAK

Euskadin, eta Espainia osoan, Salerosketaren Biktima orok informazioa jasotzeko eskubidea dute esplotazio-egoeratik nola ihes egin eta horretarako laguntza nola lortu jakiteko.

Espainian **egoera irregularrean dagoen** biktima batek **eskubide berberak** ditu.

Legeak honakoak bermatzen dizkie Salerosketaren Biktimei:

- Babesa eta segurtasuna.
- Ostatu segurua.
- Lege-aholkularitza juridikoa zure hizkuntzan edo uler dezakezun hizkuntzaren batean.
- Arreta medikoa eta psikologikoa.



LAGUNTZARIK ESKATZEN BADUZU...

... Arreta eta informazioa **ulertzen duzun hizkuntza batean** emango zaizkizu.

... **Konfidentzialtasuna** une oro bermatuko da.

... Zure iritzia kontuan hartuko da.

... **Ez dugu zuri buruzko iritzirik edo kritikarik emango** prostituzioan ari zarelako edo engainatu zaituztelako.

... Salerosleak **salatuko dituzun erabakitze-ko denbora izango duzu.**


HERRIALDEAN LEGEZKO EGOITZA- BAIMENIK EZ DUZUN ARREN:

Atzerritarrei buruzko Legeak ezartzen du **SUSPERTU eta HAUSNARTZEKO 30 eguneko gutxieneko epealdia indarberritu zaitez**en eta zure esplotatzaileen kontra has daitekeen ikerketa polizial eta/edo judizilean **lagundu nahi duzun erabaki dezazun**.

ERABAKITZEN BADUZU ALDI HORI HASTEAN, laguntza, ostatua eta babesa eskainiko zaizkizu, era horretan esplotaziotik ihes egiteko eta **giro seguru batean** erabakirik onenak hartzeko egin dezakezun guztiaz informazio egokia eman diezazuten.



Eta, gainera...

- **Aldi baterako eten ahalko dira irekita izan ditzakezun expediente zehatzaileak, esate baterako kanporatze-espeditzea.**
 - **Berehala aske geratuko zara, Atzerritarren Barneratze Zentro batean baldin bazaude.**
 - Zure **babesa eta segurtasuna** behar den polizia-unitateak bermatuko ditu.
 - **Egoitza baimena emango zaizu salbuespenezko arrazoiengatik.**
 - **Laguntza integraleko zerbitzuak** eskainiko zaizkizu, esate baterako, salerosketaren Biktimiei harrera, tratamendua, asistentzia medikoa eta psikologikoa eta laguntza eskaintzeko GKE espezializatuak.
- 

AZKENEAN IKERKETAN ETA/EDO PROZESU JUDIZIALEAN AGINTARIEKIN ELKARLANEAN ARITZEA ERABAKITZEN BADUZU, EDO ZURE EGOERA PERTSONALAGATIK HALA BEHAR IZANEZ GERO:

- Biktima gisa ez duzu administrazio-erantzukizunik.
- Espainian bizilekua izateko eta lan egiteko baimenak emango zaizkizu.
- Nahi baduzu, zure jatorrizko herrialdera bueltatu ahalko zara lagunduta.
- Zenbait agiri eskatzea zuretzat arriskugarri gertatzen bada, agiri horiek ez dituzu aurkeztu beharko.

Informa zaitez liburuxka hau irakurtzen duzun momentuan egindako hobekuntzez eta gaineratutako eskubideez eta onurez.



NORTZUK DIRA LAGUNTZA EMAN AHAL DIZUTENAK?

- Lagunak eta lankideak.
- Zure bezeroak.
- Auzokideak.
- Osasun-zerbitzuetako langileak.
- Zure egoeraren berri dakiten pertsona guztiak.



Eta, gainera:

- BAKARRIK LAGUNTZA ESKATU NAHI BADUZU
- EDO HORREZ GAIN AGINTARIEI ZURE EGOERAREN BERRI EMAN NAHI BADIEZU

Eguneko 24 orduetan **DOAN DEI DEZAKEZU:**

900 840 111

Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Euskadin dagoen doako telefonoa. 24 orduko arreta, konfidentziala da, zentzumenen gabezia dutenei egokituta dago eta 51 hizkuntzatarako aldi bereko itzulpen-zerbitzua du. **Informazioa, orientabidea, laguntasuna eta biderapena, entzuteko arreta psikologikoa eta orientabidea ematen ditu krisi edo larrialdi egoeretan.**



Kanpaina hau
babesten dugu:



campaña
corazón azul
contra la trata
de personas

Erakunde honena:



UNODC

United Nations Office on Drugs and Crime

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA

*Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

*Dirección de Atención a las Víctimas
de la Violencia de Género*